

**“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA:  
deseskolatzea eta eskola-absentismoa erauztea Bizkai Lurraldean”  
egitasmoan AURREIKUSITA DAGOEN SEGIMENDUKO  
BATZORDEAREN TXOSTENA**

**2009-2010 IKASTURTEA**

**HEZKUNTZA SAILA (Bizkaiko Lurralde Saila)  
FORU ALDUNDIA (Gizarte-Ekintza Saila)  
EUDEL**

## AURKIBIDEA

	Orria
1. SARRERA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	4
3. DATUAK JASOTZEA	5
3.1 Hitzien definizio operatiboa: absentismo, deseskolatzea, absentismo metatua eta absentismo zuzendua	5
3.2 Datuak jasotzeko ezarritako prozedura	5
4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAI LURRALDEAN	6
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	6
4.2 Haur Hezkuntza	1 0
4.3 Absentismoa eta deseskolatzearen banatzea Ikuskaritzako eskualdeka	1 0
4.4 Ikastetxe kaltetuak	1 0
4.5 Datuen eboluzioa	1 1
5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA	1 4
5.1 Ikasle absentisten familien ekarpenak	1 4
6. ONDORIOAK-SINTESIA	1 8
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	2 3
8. ESKER ONAK	2 5
9. ERANSKINAK	2 6
9.1 – I Eranskina: elkarrizketako gidoi-orria ikasle absentisten familientzat	2 7
9.2 – II Eranskina: elkarrizketako gidoi-orria ikasle absentistentzat	3 0
9.3 –III Eranskina: Bibliografia	3 5

## 1. SARRERA

*“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa erauztekoa Bizkai lurraldean”* egitasmoan aurreikusita dagoen segimenduko Batzordeak landu zituen iragan bost ikasturteetan zehar dagozkien txostenak Programa horretan bertan sartuta dauden hiru Erakundeen jokabideari buruz: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte-Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horien guztien bitartez jakin ahal izan da zer-nolakoa den absentismo eta deseskolatzearen tamaina Oinarrizko Hezkuntzako ikasleetan (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) Bizkai Lurraldean, baita Haur Hezkuntzako etapako bigarren zikloan (3-6 urte) ere. Bestalde, sartuta dauden lagunen iritzia ere jaso da, eta faktore hori gakoa da hobetzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Segidan aurkezten den txostenak –seigarren urteari dagokio (2009-10 ikasturtea) Programa ezarri zenez geroztik– jakinarazi nahi du, beste behin, absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa ez ezik eboluzioa ere, zeren eta aurreko ikasturteetan jasotako datuek balio baitute erreferente gisa konparaketak ezartzeko asmoz. Konparaketak horien guztien ondorioz esan daiteke ezen aurten absentismoko kasuen kopurua gutxiagotu egin dela, baina, hala eta guztiz ere, areagotu deseskolatuena, agertu denez gero praktika berri bat ikasle batzuetan behintzat: euren jatorrizko herrialdeetara joatea hilabete batzuetan zehar; izan ere, gertaera hori ikastetxeek deseskolatzetzat jotzen dute, eta horrexek adierazten du agertzerik larrienen erregistroak gehitzea, hain zuzen. Azaldutakoak egoera honetan kokatzen gaitu: gertatu diren hobekuntzak aintzat hartuta ere, ez da egiazkotasun txikiagokoa urtez urte jarraitzen dugula ikasle absentisten kopuru garrantzitsua jasotzeko zereginetan.

Horrek orok indarra ematen digu benetan lanari oso gogoz ekiteko arazo hori ezerezteko xedez. Bestalde, datuak jasotzeak –gero eta gehiago, gero eta zehatzagoak– lehenago bezala lagundu egingo digu arazoa hobeki fokalizatua edukitzen, eta horren ondorioz, hori gainditzeko esku-hartzean eraginkorragoak izaten; izan ere, orain ere pentsatzen dugu ikastetxera sarri ez joateak zaitasun handia sortzen duela ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoan, eta geroan baztertua eta gizartetik kanporatzea eragiten duela.

Gainera, aurreko ikasturtean esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, praktika onen azterketak eta ikasketa konparatuek agertu egiten dute eskola absentismoa beste azaro batzuen “detektagailu” on bezala dabilela, hala nola tratu txarra, berdinaren arteko erasoak, osasun arazoak... Horrek, litekeena bada, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa aurkitu orduko.

Sartuta dauden lagunen iritzia –Programa bultzatu duten hiru Erakundeei dagozkie– ere jasotzen da txosten honetan. Aurten jokaera absentistaren zergatiak aztertzen dira talde batzuen balioespenaren arabera, hots: ikastetxeetako zuzendaritzak, oinarrizko gizarte-langileak eta udaleko beste talde batzuk, baita Foru Aldundiko zerbitzu espezializatuetako teknikariak ere. Iritzi hori oso argia da eta erabatekoa, agertzen baitu ikasleen portaera absentistak hasten direla hezkuntzako lehen etapetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza), kasuen erdietan baino gehiagotan familiaren arazoak daudela eta portzentaje garrantzitsu bat dagokiela gizartean baztertuak dauden taldeei. Absentismoaren arazoa

erauzten lagundu dezaketen osagaiak dagokienez, azpimarratu egiten da familiekin batera lan egin beharra hezkuntza seme-alabentzako gauza ontzat eduki dezaten, eta era koordinatu batean lanean jarraitu beharra hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera, eta, horren ondorioz, saihestu erabili ez izanak eragin litzakeen desberdintasun egoerak. Helburu horri ere nahi zioten erantzun Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-Ekintzako Ahalduinak eta EUDELekeo Gizarte-Kontuen arduradunak, 2003ko apirilean *“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa erantztea Bizkai lurraldean”* egitasmoa aurkeztu zutenean, hiru Erakundeek euren gain hartuta.

Helburuak nola dabilzan aurrera egiaztatze aldera eta sartuta dauden Erakunde bakoitzari hobekuntzako urratsak eskaini ahal izateko gogoz, Programak berak aurreikusten du segimenduko Batzorde bat egotea. 2009-2010 ikasturteari dagokion txosten honek nahi du Batzorde horrek bere gain hartu dituen eginkizunak betearazi.

## **2. PROGRAMAREN HELBURUAK**

Hona hemen programa hori martxan jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko aldirian dauden adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, deseskolatzea eta eskola absentismoa saihestuz.
- Gizarte toki baztertuetatik datozen familien portaera sustatzea hiru eta sei urte bitarteko adingabeak eskolatzeko.
- Familia horien eskariak lehenetsi eta saritzea hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzea xede dutenean.
- Kontu horren larritasuna sentsibilizatzea sartuta dauden profesionaleri, gizarteari oro har eta zeregin horretan diharduten lagun guztiei.
- Sartuta dauden erakundeek koordinaturik lan egitea (Justiziako Saila, Enplegua eta Gizarte-segurantza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Udalak; Foru Aldundia eta Fiskaltza) prebentziorako eta deseskolatze eta eskola absentismoaren aurka esku hartzeko.
- Deseskolatze eta eskola absentismoaren ebaluatzea, baita martxan jarriko diren esku-hartzeak ere.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete helburu formulatuei, baina bereziki azpimarratzen da problemaren hedadura sustatzea; izan ere, zenbat eta hobeki jakin, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezkeen eta, azken finean, konpontze aldera.

### 3. DATUAK JASOTZEA

#### 3.1. Hitzen definizio operatiboa: absentismo, deseskolatzea, absentismo metatua eta absentismo zuzendua

Ekartzen diren datuak interpretatzeko txosten honetan jasotzen da deseskolatze, eskola absentismo, absentismo metatu eta absentismo zuzendu hitzen definizio operatiboa:

- **Deseskolatzea:** derrigorrezko eskolatzeko adineko adingabeen (6-16 urte) egoera da, Ikastetxean matrikulatu gabe daudelarik. Kontzeptu horretan ere sartuta dago adingabeen egoera justifikatu gabeko hutsegiteen %100 daudenean matrikulatuta egonagatik ere.
- **Eskola Absentismo:** Eskola absentismotzat jotzen da Ikastetxera era jarraituan ez joatea justifika dezakeen batere ziorik gabe, onartuta edo bultzatuta familiaren beraren aldetik edo ikaslearen beraren gustura, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Kontzeptu honen definizio operatiboan absentismoko tasa jotzen da justifikatu gabeko hutsegitearen portzentajetzat hilabeteko denboraldian. Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiagotzat jotzen da. Absentismo kontzeptua aplikatuko da, prebenitzeko gogo batekin eta ezberdintasunen konpentsatzailea Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinetik aurrera.
- **Absentismo metatua:** tarteka jasotzen da absentismo metatuaren portzentajea ikasle absentisten artean ikasturtean zehar. Hona hemen tarteen esangura:
  - %25: joan gabeko egunen %25eraini ikasturtean.
  - >%25-%50: joan gabeko egunen %25 baino gehiagotik %50era ikasturtean.
  - >%50-%75: joan gabeko egunen %50 baino gehiagotik %75era ikasturtean..
  - >75%: joan gabeko egunen %75 baino gehiagotik %99ra ikasturtean. (hutsegiteen %100 eta deseskolatzea baliokide dira).
- **Absentismo zuzendua:** absentista izan ondoren absentismoko erregistrorik ez izatera pasatu diren ikasleen kopuru eta portzentajea jasotzen dira 2010eko apiril, maiatz eta ekainean gutxienez.

#### 3.2. Datuak jasotzeko segitu den prozedura

Programan ezarritako protokoloa segitu da. Hau da, hileroko bost eguna baino lehenago Ikastetxeek igorri dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara eta Udaletxetara dagozkien erregistroko orriak ikasleen izenekin beteta, gorago azalduta dauden

hitzen definizio operatiboaren arabera hilero justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago dute. Gainera, ikasturteon hiruhileko bakoitza amaitzean, Ikastetxe guztiek (hileko absentismoko erregistrorik izan duten ala ez berdín da) Hezkuntza Ikuskaritza honetara igorri behar izan dute fitxa-sintesi bat, non aztertzen baitzen ikasleen absentisten egoera, eta horrek hobetu egin du datuak jaso izanaren kontrola.

Erregistroak jaso ondoren, Ikastetxeko Ikuskariak aztertuko ditu eta aplikazio informatikoan sartuko horretarako landu denez. Aplikazio horren diseinuari esker aukera eman zaigu Ikastetxe eta ikasleen kopurua jakiteko 2009-2010 ikasturtean zehar absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat izan dutenena.

Azkenik, ikasle absentisten eta euren familien iritzia ere jaso da. I eta II Eranskinetan batzen dira iritzi horiek jasotzeko balio izan duten dokumentuak.

#### **4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMENTSIOA BIZKAI LURRALDEAN**

##### **4.1. OINARRIZKO HEZKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH)**

###### **4.1.1. Ikasleen kopuru osoa portaera absentista edo deseskolatuarekin:**

Absentismo kasuak gehi deseskolatzekoak, 1.475 da kopurua orotara.

Kopuru horrek suposatzen du oinarrizko irakaskuntzako ikasleen %1,5. Aurreko ikasturteari dagokionez, absentismo edo deseskolatzeko portaera duten ikasleen kopurua gehitu egin da 156. Azterketa zehatzago batek adierazten digu ezen gehitze hori gertatu dela Ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle absentisten kopuruan eta Derrigorrezko Bigarrenean Itunpeko Ikastetxe Pribatuetan, hala ere, gutxiagotu egin da deseskolatuen kopurua, eta horrek adierazten du murrizketa bat agerpenik larrienen erregistroetan.

Aurrekoak erakusten digunez, gertatutako hobekuntza aitortu arren, ez da batere gezurra urtez urte dakusagula absentisten kopuruaren areagotze txiki bat. Suposatzen dugu zerikusia duela horrek datuak zorrotzago jaso izana, urte oroz hobetzen direnez gero jasotze horren kontrolak. Baina, azalpen hau zuzena delarik edo ez, aztertzen jarraitu beharra daukagu martxan jarritako esku-hartze guztien eraginkortasuna hezkuntzarako eskubideari bermea emate aldera; izan ere, arazo hori kentzea lortu ezean, ezinbestekoa da benetan ekitea beste aukerarik bilatzeari.

###### **4.1.2. Ikasleen kopuru osoa portaera absentistarekin:**

Orotara 1.401 ikaslek izan dute portaera absentista. Titulartasun eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
28.170	686	2,4	15.891	498	3,1	30.237	93	0,3	19.731	124	0,6

Aurreko ikasturteetan bezala, portaera absentista daukaten ikasleen portzentajea handiagoa da argi eta garbi DBH etapan Lehen Hezkuntzan baino. Halaber, Ikastetxe publikoei dagozkien portzentajeak askoz handiagoak dira oraindik ere itunpeko Ikastetxe pribatuetakoak baino, eta zioei buruz azalpena egiten da txosten honen 23. orrialdean.

#### 4.1.3. Ikasle deseskolatuen kopurua

Honela banatzen dira deseskolatzeko egoeran dauden 74 ikasleak:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%
28.170	18	0,06	15.891	37	0,2	30.237	3	0,01	19.731	16	0,08

Koadrootako datuek adierazten dute argi eta garbi portzentajeko desberdintasun bera hezkuntza etapa bien artean eta aurreko atalean aipatu diren Ikastetxe batzuen eta besteen artean.

#### 4.1.4. Ikasleen kopuru osoa portaera absentista edo deseskolatuarekin

LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absent. eta desesk.	%	Ikasleak	Absent. eta desesk.	%
58.407	800	1,4	35.622	675	1,9

#### 4.1.5. Absentismo metatua. Hutsegiteen portzentajea ikasturtean zehar

##### 4.1.5.1. Ikasle absentistak Ikastetxe Publikoetan

LEHENA								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
686	597	87	82	11,9	6	0,9	1	0,1

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten portzentajerik handiena Ikastetxe publikoetan (%87) %25erainoko tartean kokatzen da.

>%75 tarteko absentisten kopuruari (1) deseskolatuak gehituz gero, (18), egoera hauetako portzentajea –problema honen agerpenik larrienak dira– %2,7ra igoko litzateke.

DBH								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
498	373	74,9	80	16,1	27	5,4	18	3,6

DBHn, nahiz eta absentismoaren portzentajerik handiena ere (%74,9) tartean %25eraino heltzen den, halarik ere, hori jaisi egiten da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Horrela, absentismorik larrienera tartean DBHn portzentaje askoz altuagoak aurkitzen dira, eta >%75 tartearen kasuan %3,6ra igotzen dira.

Lehenago bezala, azken tarteko absentisten kopuruari (18) deseskolatuak gehituz gero, (37), egoera hauetako portzentajea %10,3ra igoko litzateke.

#### 4.1.5.2. Ikasle absentistak Ikastetxe Pribatu Itunduetan

LEHENA								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
93	74	79,6	19	20,4	0	0	0	0

Ikasleen kontzentrazio bera gertatzen da itunpeko Ikastetxe Pribatuetan lehen tartean, hots, ez du gainditzen ikasturtean zehar hutsegiteen %25; hemen ez da heltzen %79,6ra .

Era berean >%75 tarteko absentisten kopuruari (kasuon ez dago) deseskolatuak (3) metatuko baldin bagenizkio, egoera bi horien portzentajea %3,1era igoko litzateke.

DBH								
GUZTI RA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
124	88	71	29	23,4	5	4,03	2	1,6

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn ere agertzen du kontzentrazio txikiagoa absentismo banantzeak %25eko mailan, eta haziera %1,6raino izango da absentismo mailarik larrienean.

Azken tarteko 2 absentistek deseskolatuak (16) eranstea, bien batuketaren portzentajea %12,8 izango litzateke.



#### 4.1.6. Absentismo zuzendua

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK			
LEHENA		DBH		LEHENA		DBH	
Absentisten kop: 686		Absentisten kop: 498		Absentisten kop: 93		Absentisten kop: 124	
Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%
320	46,6	208	41,8	40	43	56	45,2

Aurreko koadroko datuek izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan ez diren ikasle absentisten kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: Erakundeen esku-hartzeak arazo hori gaingitzeko xedez, edota portaera absentista eragin bide duen egoeraren araberrako zirkunstantzia desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatiboaren barruan sartzen baitira hainbat zioengatik egunen %20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabetean bakarrik izan den arren.

Datu hauen bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, ikasturtean zehar portaera absentistari sendo eusten diotenena esku-hartze guztiak gorabehera. Kopuru hori ateratze aldera, guztizkoei aurreko koadroko datuak kentzen zaizkie, baita txosten honetako 4.1.2 atalean daudenei ere, eta Lehen Hezkuntzako 419 ikaslera heltzen da (%0,7) eta DBHko 358 ikaslera (%1).

#### 4.1.7. Udaleko Gizarte-Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako espedienteen kopurua.

	Bideratutako espediente kop.	% (1)	% (2)
<b>Udaleko Gizarte-Zerbitzuak</b>	618	33	0,5
<b>Foru Aldundia</b>	10	0,5	0,08
<b>Fiskaltza</b>	59	4	0,06

(1) % absentismo eta/edo deseskolatzeko kasu guztien gainean. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(2) % derrigorrezko irakaskuntza eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gainean Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

Ministerio Fiskalak kasu bideratuetan esku-hartzeko protokolo bera segitu du, aurreko urteetan bezala: familia eta seme-alaba absentista edo deseskolatuari hitzordua ematea, hiru hilabetean segimendua gauzatzea eboluzioa balioesteko, Ikastetxeak ekarritako informazioa kontuan edukirik. Hiruhileko segimendu horri eusten zaio arazoak dirauen bitartean, derrigorrezko eskolatzea amaitu arte, eta horrela gertatuz gero, ekin behar zaio salaketa egiteari gurasoen aurka, familian

seme-alabak bertan behera uzten dituztelakoan daudenean. Halako salaketa hiru familiaren aurka egin da ikasturte honetan.

#### 4.2. HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
15.252	304	2	15.998	24	0,1

Haur Hezkuntzako 2. zikloari dagozkion datuak eskaintzen dira, derrigorrezko mailakoa izan ez arren, hasiera-hasieratik eskolatzeko adorea sartzeko xedez bakarrik, gizartean baztertuak dauden herriguneeen kasuetan batez ere.

#### 4.3. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEA BANATZEA IKUSKARITZAKO ESKUALDEKA

Guztira	Eskualdeak			
	1	2	3	4
125.279 (1)	23.715 (18,9%)	29.979 (23,9%)	41.638 (33,2%)	29.947 (23,8%)
1.803 (2)	70 (3,9%)	62 (3,4%)	1.122 (62,2 %)	549 (30,5%)
<b>Absentismoko indizea</b>	(0,3%)	(0,2%)	(2,7%)	(1,8%)

- (1) *Guztizko horretan Bizkai lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezketza eta DBH) eta bigarren zikloko Haur Hezketzako ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori Ikuskaritzako lau eskualdeetan banatzen da taulak adierazten duen bezala. 1. eskualdea: Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdea. 2. eskualdea: Uribe. 3. eskualdea: Bilbo eta Nerbioi Garaia. 4. eskualdea: Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.*
- (2) *Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen guztizkoa Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezketza eta DBH) eta Bizkaiko Haur Hezketzan.*

Ikus daitekeenez, banatze hori eskualdeka eginda ez da berdintsua, baizik eta 3 eta 4. eskualdeetan batez ere.

#### 4.4. IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
256	128	50	141	41	29,1

### Portaera absentista eta/edo deseskolatuekin 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeek

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
256	52	20,3	141	10	7,1

Bigarren koadro honetako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoko arazoan kaltea duten Ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude; izan ere, lehenengo koadroan islatzen dira erregistroren bat izan duten Ikastetxe guztiak, ikasle bati dagokion erregistro bakar bat izanagatik ere.

#### 4.5. DATUEN EBOLUZIOA AZKEN URTEETAN

IKASTURTEAK	ABSENT+DESESK OIN. HEZ.	ABSENTISMO HAUR HEZ..	IKAST. KALTETUAK > 6 kasu		FISKALTZARA BIDERATUAK
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUN.	
2003-2004	1.074 (%1,2)	201 (%0,76)	38 (%15,1)	6 (%4,4)	8 (%0,63)
2004-2005	1.133 (%1,3)	197 (%0,72)	39 (%15,5)	5 (%3,6)	28 (%2,5)
2005-2006	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)
2006-2007	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)
2007-2008	1.405 (%1,5)	300 (%0,99)	50 (%19,8)	14 (%10,2)	41 (%2,9)
2008-2009	1.319 (%1,4)	330 (%1,06)	54 (%21,1)	14 (%9,9)	52 (%3,9)
2009-2010	1.475 (1,5%)	328 (1,04%)	52 (20,3%)	10 (7,1%)	59 (4%)

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen eboluzioa segimendu horretan jardun izan duten zazpi ikasturteetan zehar. Oinarrizko Irakaskuntzan aurtan absentisten kopurua gutxiagotu bada ere, harrigarria izan liteke beste datu batzuk larriagotu izana iruditzea absentismoaren segimenduko asmo hau aurrera doan neurrian, baina zerean datza azalpena nonbait: kontrol-gailua ere hobetu egin da apurka-apurka. Lortu egin zen aurreko ikasturtean ia ikastetxe guztiek betetzea hiruhileko fitxa-sintesia, eta horri esker sakonago dakigu arazoaren errealitatea; horrela absentismo eta deseskolatze kasuak areagotu egin dira, antza denez.

Absentismo zuzenduari dagokiolarik, esan behar da hurrengo taula horrek eboluzio osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean, hain zuzen.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK	
	LEHENA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	LEHENA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
2004-2005	%42	%49	%57	%44
2005-2006	%42,4	%44	%52,5	%34,6
2006-2007	%63,4	%55,1	%67,5	%59,4
2007-2008	%47,1	%48	%48,4	%39
2008-2009	%44,1	%43,8	%65,1	%46
2009-2010	46,6%	41,8%	43%	45,2%

Taula horretan ikus daitekeenez, ikasturteon berriro zuzendu diren kasuen portzentajea aurrekoan baino gutxiago da, itunpeko ikastetxe pribatuetan izan ezik.

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren eboluzioa jasotzen da (Ikastetxera ikasturteko lanegunen %75ean joaten ez diren ikasle absentisten portzentajea jasotzen du, deseskolatuekin batera), informazio hau jaso den bost ikasturteetan zehar.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK	
	LEHENA Absentismoa %75etik %100era	DBH Absentismoa %75etik %100era	LEHENA Absentismoa %75etik %100era	DBH Absentismoa %75etik %100era
2004-2005	%6,5	%17,1	%6,8	%24,6
2005-2006	%6,6	%19	%15,6	%15,5
2006-2007	%4,9	%10,5	%1,3	%5,9
2007-2008	%2,9	%9,5	%3,2	%14,2
2008-2009	%7,4	%12,6	%4,5	%11,7
2009-2010	2,7%	10,3%	3,1%	12,8%

Aurreko taulak jakinarazten du arazoaren dimentsiorik larriena (ikasturte osoan zehar praktikoki dirauenean) ikasturteon gutxitu egin dela aurrekoaren aldean, Itunpeko Ikastetxe Pribatuetako DBHn izan ezik: horretan areagotu egin baita.

Horren harira azpimarratzen dugu, aurreko ikasturteetan bezala, arazo horren dimentsioa, txikia hezkuntza sistemako ikuspuntutik, ez dela banakotik, zeren eta eskola porrota eragiten duen egoera hori baita lagun horien geroko bazterketa sozialaren zioetarikoa. Hori dela eta, txosten honetan ere gogora dakargu,

aurrekoetan legez, J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen Nazioarteko Batzordeak XXI. menderako hezkuntzari buruz UNESCOri egindako Txostenean islatzen dena:

*“Muchos países, sobre todo entre los países desarrollados, padecen en la actualidad un fenómeno muy desconcertante para las políticas educativas: paradójicamente la prolongación de la escolaridad ha agravado más que mejorado la situación de los jóvenes socialmente más desfavorecidos o en situación de fracaso escolar. Incluso en los países en los que los gastos de educación figuran entre los más elevados del mundo, el fracaso y la deserción escolares afectan a una proporción considerable de alumnos. Producen una división entre dos categorías de jóvenes, que resulta tanto más grave cuanto que persiste en el mundo laboral. (...) Generador de exclusión, el fracaso escolar es en muchos casos el origen de algunas formas de violencia o de extravíos individuales. Estos procesos que desgarran el tejido social hacen que se denuncie a la escuela como factor de exclusión social y al mismo tiempo que se la solicite con insistencia como institución clave de integración o reintegración. Los problemas que plantean a las políticas educativas son especialmente difíciles; la lucha contra el fracaso escolar debe ser, por tanto, un imperativo social” (p. 61).*

Gainera hainbat ikerketatan jasotzen da arazo hau; izan ere, deseskolatzearen ondorioak gaur egun serioagoak dira erabilera beteko denboraldian baino. M. Esterle Hedibelen (2005) “Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar” artikuluan baieztatzen denez, “*el nivel de formación requerido para ocupar un empleo se ha elevado hoy, y las perspectivas socio-profesionales de los alumnos que dejan el sistema escolar sin título y/o antes de los 16 años se han reducido considerablemente*”.

“El absentismo escolar como reto para la calidad educativa” izeneko hezkuntza-ikerketako lanak –J. Rué, M. Amela eta M. Buscarons-ek egin zuten (2003)– ondorioztatzen du ezen ikerketa horrek jarri dituela errealitate konplexu baten aurrean. Errealitate horrek agertu ditu ez ezik mugak ikasle zehatz batzuekin, beste bide batzuk ere irakaskuntzan jarduteko eta kalitate bermeak eskaintzeko derrigorrezko hezkuntzako erabiltzaile guztiei. Horrek adierazten du eskolatzeko berrien hitzetan gehiago mintzatzea, hau da, azaleratzen diren eskari hitzetan gehiago egoera pertsonal bereziei laguntzean, ikasle absentisten motak adibidez. Ikasleok agertzen dituzte hainbat erronka-maila eurentzako erakunde baterantz, baina ez dira gauza beraren funtzionaltasuna onartzeko edo, are gaizkiago, era irekian errefusatzeko dute.

M<sup>a</sup> Teresa González Gonzálezen “Absentismo y abandono escolar: una situación singular de la exclusión educativa” artikuluan (2006), heltzen zaio absentismo arazoari, eta ikaslearen gaineko foku bakarretik iragaten da (famili ezaugarriak, bizi den gizartearenak, bereizgarri pertsonalak, portaera akademikoak...) eskola-antolakuntza eta hezkuntza politiken fokura, eta zera dio amaiera gisa:

- Edozein jokabide absentismoa eta bertan behera uztea saihesteko ez da izango eraginkorra baldin eta ikastetxeko kide guztiak ez badaude ados zerean: bertaratzea hobetzea aldaketa adierazgarriak egitetik iragaten da ikasketako giroen kalitatea hobetze aldera.
- Garatzen diren estrategia eta planek abiatu behar dute miaketa eta ulerkuntzatik ikastetxearen aldetik, hots, zergatik ez doazen ikasleak eskolara, zergatik deskonektatzen diren curriculumetik, zergatik ez dauden katigatuak

lan akademikoarekin, ezta gizartearekin ere... Hortaz, ezinbestekoa da jakitea zein neurritan eragiten dituzten estruktura berek, eskaintzen diren curriculumak eta gelako irakaskuntzak, inguruarekiko harremanek eta ikastetxearen funtzionamendua artikulatzen duten usteek bertaratze eta bertan behera uzte arazoak.

Marco de Investigación de la Unión Europea Programen barruan (INCLUD-ED), A. Flecha, R. García, A. Gómez eta A. Torreren (2009) “Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa” artikuluan, jasotzen da ezen eskola-familia arteko harremanean oinarritzen diren ikerketak demostratu egin dutela familien eta elkartearen sartzekak areagotu egiten duela gutxiengo kulturei dagozkien edo minusbaliotasuna daukaten ikasleen errendimendua (Caspé, López y Wolos, 2007; Dearing, Kreider, Simkins y Weiss, 2006; Driessen, Smith y Slegers, 2005; Hess, Molina y Kozleski, 2006; Merry, 2005). Ekarperek, nazioarteko elkarte zientifikoak ezagutzen dituztenak, eskatzen zuten sakontzea jakiteko zeintzuk diren sartzeko erak, hezkuntza-arrakastarekin erlazionatzen direnak. Includ-ed Egitasmoaren emaitzek ekarri zuten elkartearen parte-hartzeko zenbait eraren sailkapena ikastetxeetan: informazioa, kontsulta, erabakia, ebaluazioa eta hezkuntza. Argi eta garbi ikusi da familien eta elkartearen parte-hartzeko jokabide zehatzen daukatela lotura gizarteko behe-mailako eta gutxiengo taldeetako ikasleen arrakastarekin: familien prestakuntza, elkartearen esku-hartzea erabakia hartzeko prozesuetan eta parte-hartzea curriculumaren garapenean eta ebaluazioan.

Azkenik, iragan azaroko “Competencias clave para un mundo cambiante” deritzan dokumentuan (Batzordearen mezua Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Komite zientifiko eta sozial europerrari eta lurraldeen Komiteari), hauxe diote “*Los métodos innovadores, como los programas de aprendizaje personalizados y el aprendizaje basado en la experimentación, pueden ser especialmente útiles para quienes hayan sufrido experiencias escolares negativas o marcadas por el fracaso*”.

## 5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA

### 5.1. FAMILIEN ETA IKASLE ABSENTISTEN EKARPENAK

Beharrezkoa zen absentistei ahotsa ematea, eta horrexen harira ikasturteon jaso da ikasle absentisten familien hainbat informazio, zioei dagokienez, hots, zergatik ez diren joaten seme-alabak ikastetxera, eskolara ez joatearen ondorioei buruz, seme-alabek jasotzen duten hezkuntzaz duten balioespenaren gainean... Halaber, ikasle absentistari berari ere egin diote galdera. Aurreikusia zegoen izango zirela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan matrikulatutako ikasleak, baina Lehen Hezkuntza etapako zenbait ikasleri ere egin zaio elkarrizketa, familiei egindako elkarrizketa aprobetxatuz. Euren ere galdetu diete zergatik ez doazen eskola edo institutura, zer egiten duten eskolara ez doazenean, zer deritzoten euren familiek portaera horri... Familia eta ikasleekin egindako elkarrizketen gidoiak ageri dira I eta II. Eranskinetan.

Barakaldo eta Bilbo Udalerrietan eskola absentismoa saiheste aldera lanean diharduten talde profesionalek egin dituzte elkarrizketak. Hurrengo taulan ageri da bi udalerrietan egindako elkarrizketen kopurua:

	Elkarrizketen kop. Familiak	Elkarrizketen kop. ikasleak
<b>BARAKALDO</b>	10	22
<b>BILBAO</b>	25	28
<b>GUZTIRA</b>	35	50

Datuok xehatzen dira jarraian hurrengo taulan, eta familia elkarrizketatuen kasuan azaltzen da seme-alaben kopurua, hezkuntza etapetan banatuak (HH: Haur Hezkuntza; LH: Lehen Hezkuntza eta DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza). Ikasle elkarrizketatuen kasuan, mutiletan eta nesketan xehatzen da, baita eskolatua dauden hezkuntza mailan ere (LH: Lehen Hezkuntza eta DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza).

	Familia elkarriz. kop.	Seme-alaben kop.			Ikasle elkarriz. kop.		Ikasten ari diren hezkuntza maila	
		HH	LH	DBH	MU	NE	LH	DBH
<b>BARAKALDO</b>	10	8	13	0	11	11	0	22
<b>BILBAO</b>	25	4	27	12	12	16	4	24
<b>GUZTIRA</b>	35	12	40	12	23	27	4	46

### 5.1.1. Elkarrizketak 35 familiarekin seme-alaba absentistak izateagatik

“Hainbat galdera” zutabea jasotzen dira oinarrizko bost galderak, familiei egin beharrekoak, eta berek emandako erantzunak. Datuok dira beste urrats bat hobeki ulertzeko zergatik ez doazen haur eta nerabeak eskolara justifikatu gabe derrigorrezko eskolatze adinean. Familia bakoitzak eman diezaioke erantzun bat baino gehiago galdera bakoitzari; hori dela eta, zutabe bakoitzeko batuketak gainditu dezake familia elkarrizketatu guztien kopurua.

Hainbat galdera eta erantzun	Erantzunen kop. Barakaldon	Erantzunen kop. Bilbon	Guztira
<b>1. Zergatik ez doa eskolara zure seme/alaba?</b>			
- Gaixorik dagoelako	8	14	22 (%62,8)
- Joan nahi ez duelako (eskolaratzean jasangaitza jartzen da eta amarekin behar du etxera itzuli, ez du nahi goiz jaiki ...)		8	8 (%22,8)
- Arazoa ikastetxerekin (arrazistak dira, jotzen dute, arazoak dituzte irakaslearekin, alferra da eta ez du adiskiderik Institutuan, adarra jotzen diotelakoan dago ...)	2	4	6 (%17,1)
- Lagundu egin behar du etxean (arriba txikia jagon, bere alaba bera, ama gaixorik...)		5	5 (%14,3)
- Distantziagatik (udalerritik kanpo bizi dira,edo urrun, eta nekagarria da eramatea, eguraldi txarra denean batik bat )	3		3 (%8,6)
- Ez du norekin utzi erosketan jardun behar duenean	1		1 (%2,9)

- Goizean semearekin egoteagatik (lan egiten du eta une horretan bakarrik egon daiteke berarekin)	1		1 (%2,9)
- Mahats-bilketara joatea		1	1 (%2,9)
<b>2. Zer egiten zure seme/alabak eskolara ez doanean? Norekin dago eta non?</b>			
- Etxean dago (senideekin: ama, izeba, amama... edo jagoleren bat)	10	22	32 (%91,4)
- Etxean dagoenean: amari laguntzen dio, anai-arreba txikiak zaintzen ditu, telebista ikusten du, lotan geratzen da		8	8 (%22,9)
- Adiskideekin dago (lonjan, kalean...)		3	3 (%8,6)
<b>3. Zure ustez, zein-nolako ondorioak ekarriko dizkio zure seme/alabari eskolara ez joateak?</b>			
- Atzerapen akademiko handia (ez dio laguntzen hobetzen, ikasurtea errepikatu beharko du, ez du ikasiko lagunek bezala, analfabetoa izango da, ez du aterako graduatua ...)	6	18	24 (%68,6)
- Ez du aurkituko lanik geroan, ez du izango besteek adina aukera, horrek eraman dezake arazoetan sartzera, bizitza ohitura okerrak ...		7	7 (%20)
- Ez gehiegi (anai-arreba nagusiek ere egin zuten huts, ez zitzairen ezer jazo eta orain ez dabilta gaizki)	3	1	4 (%11,4)
- Ezer ez (oso txikia da eta badu denbora luzerik ikasteko)	1	1	2 (%5,7)
<b>4. Eta zuri?</b>			
- Laguntzak kentzea, Udaletxean, Aldundian edo Fiskaltzan hitzordua ematea	6	11	17 (%48,6)
- Semeak gurasoengandik izango duen dependentzia, seme-alabekin duten itxaropena ez betetzea, porrot, erruduntasun, ... sentimenduak.		5	5 (%14,3)
- Azalpenak eman beharra	2		2 (%5,7)
- Ez daki	3	6	9 (%25,7)
<b>5. Nahi al duzu zeure seme/alaba eskolara joatea?</b>			
- Bai	6	24	30 (%85,7)
<b>Zelan lagundu ahal zaio? Zer behar du?</b>			
- Psikologo batek laguntzea etxean, gaizki portatzen denean, oihuka eta joka... Beharrezkoa da norbait haiekin mintzatzea, eta ondorioen berri ematea.		6	6 (%17,1)
- Eskatzen du ez izatea hain zorrotzak ikastetxean sarrerako ordutegian, komunera joateko baimenekin, segurtatzea joko ez dutela ... Ikastetxe berera joatea (bata lehenekoa da eta bestea bigarrenekoa), bota ez dezatela jantokitik ...	1	3	4 (%11,4)
- Eskatzen du lagun bat jartzea haurrak eskolara eraman eta ekartzeko.	2	1	3 (%8,65)
- Eskatzen du taxi bat etxetik eskolara	1		1 (%2,9)

### 5.1.2. Elkarrizketak 50 ikasle absentistarekin

II. Eranskinen jasotzen da elkarrizketako gidoia; hori Barakaldo eta Bilboko udalerrietako eskola absentismoaren kontrako esku-hartzeko taldeek izan zuten kontuan nerabe absentisten datuak eskatzeko orduan. Haiei ere eskatzen zaie zein zio dagoen eskolara ez joateko, ikastetxera ez doazenean egiten dutenarengatik, familien jarreragatik, jokaera horrek ekarriko dituen ondorioengatik eta, azkenik, eskolara itzuli denetz, bultzatu duten arrazoiengatik. Hurrengo taulan ageri dira galderak eta elkarrizketatutako 50 ikaslek emandako erantzunak. Hemen ere zutabe bakoitzeko batuketak gaingitu dezake familia elkarrizketatu guztien kopurua.



Hainbat galdera eta erantzun	Erantzunen kop. Barakaldon	Erantzunen kop. Bilbon	Guztira
<b>1. Zergatik ez zoaz eskolara?</b>			
- Aspertu egiten naiz eskolan	10	16	26 (%52)
- Nahiago ditut beste gauza batzuk egin (lo egin, kalean ibili, merkatura joan aittiarekin, futboleko jolastu, lagunekin egon ...)	3	9	12 (%24)
- Nire adiskideek ere egiten dute.	1	7	8 (%16)
- Ez dut gogorik edo zio pertsonalik, ez ditut hizkuntzak gogoko, ez dut atsegin neure ikasgela, gaixorik nago, loak hartzen nau, beste udalerrri batean bizi naiz.	4	3	7 (%14)
- Ezin diot jarraitu eskolara dena oso zaila gertatzen zaidalako	1	5	6 (%12)
- Ez dago ezein arrazoi berezirik	4	2	6 (%12)
- Senideren bat jagon behar dut	1	4	5 (%10)
- Ez dut ikusten irakasten didatenak ezertarako balioko didanik	2	2	4 (%8)
- Ez dut aurkitzen sostengu/laguntzarik irakasleen artean	1	1	2 (%4)
- Familiari laguntzen diot lanen batean	1		1 (%2)
<b>2. Zer egiten duzu eskolara ez zoazenean?</b>			
- Etxean geratzen naiz (lotan, telebista ikusten, batzuetan norbaiti laguntzen diot ...)	14	19	33 (%66)
- Kalera irteten naiz, adiskideekin nabil hor zehar, gurasoekin noa, bar batean geratzen naiz...	5	13	18 (%36)
- Gurasoei laguntzen diet lanen batean (etxea zaintzen dut, erosketan laguntzen, neure arreba txikia daramat ikastetxera ...)	7	8	15 (%30)
<b>3. Ba al daki amak ez zoazela eskolara?</b>			
- Bai	14	27	41 (%82)
<b>4. Zer egiten du zure amak eskolara ez zoazela dakienean?</b>			
- Haserretu eta errieta egiten dit	18	16	34 (%82,9)
- Zigortu egiten nau (irten gabe asteburuetan, ordenagailurik gabe, sakelakorik gabe, pagarik gabe, telebistatik ikusi gabe, play jolastu gabe, futbolik gabe...)	4	9	13 (%31,7)
- Ez du ezer egiten	3	4	7 (%17,1)
- Ongi deritzo	1	3	4 (%9,8)
- Ikastetxez aldatuko nauela diost	1		1 (%2,4)
<b>5. Ba al daki aitak ez zoazela eskolara?</b>			
- Bai	15	18	33 (%66)
<b>6. Zer egiten du zure aitak eskolara ez zoazela dakienean?</b>			
- Haserretu eta errieta egiten dit	12	9	21 (%63,6)
- Zigortu egiten nau (irten gabe asteburuetan, ordenagailurik gabe, sakelakorik gabe, pagarik gabe, egin ezinik gustuko ditudan gauzak ...)	1	6	7 (%18,2)
- Ongi deritzo	1	4	5 (%15,1)
- Ez du ezer egiten	1	3	4 (%12,1)
<b>7. Zure ustez, zein-nolako ondorioak ekarriko dizkizu eskolara ez joateak?</b>			
- Ikasturtea errepikatzea	10	18	28 (%56)
- Titulurik gabe geratuko naiz eta zaila izango zait lana aurkitzea	9	12	21 (%42)
- Errieta eta zigorrak irakasle eta senideen aldetik	5	7	12 (%24)
- Ezer ez	4	4	8 (%16)
- Besterik: mailatik iragango naiz gaintitu gabeko ikasgai gehiagorekin, arazo gehiago eragingo dizkiot amari, epaiketa izan dezaket agian	1	2	3 (%6)
<b>8. Itzuli al zara eskolara?</b>			
- Bai	16	20	36 (%72)
<b>9. Zergatik itzuli zara eskolara?</b>			
- Ulertu egin dut hobia dela niretzat	7	11	18 (%50)

- Senideek behartzen nautelako	8	9	17 (%47,2)
- Eskolei aspergarri gutxiago deritzet (aldatu egin dira eskolak emateko erak , ordenagailu gehiago erabiltzen ditugu, lan gehiago egiten dugu taldetan ...)	3	2	5 (%13,9)
- Badut lagun bat laguntzen didana	1	4	5 (%13,9)
- Hobeto sentitzen naizelako, motibatuago nagoelako, ez dut nahi arazo gehiagorik ez familiarekin ez Udalarekin, aspertu egiten naiz etxean edo kalean ...	2	2	4 (%11,1)
- Etxean baino hobeto nagoelako	2	1	3 (%8,3)
<b>10. Zerk itzularaziko zintuzke eskolara?</b>			
1- Beranduago hasteak, arratsaldean eskolarik ez egoteak, eskolak laburragoak izateak		9	9 (1)
2- Graduatua ateratzeko	2	3	5 (1)
3- Ikasgelaz edo ikastetxez aldatzeak, dibertsifikazioan egoteak	1	4	5 (1)
4- Motibatuago nagoelako noa, ikasturtearen erritmoa berreskuratu behar dut	1	1	2 (1)
5- Behartu egin nautelako noa	1	1	2 (1)
6- Irakasle onak izateak, ikastetxean jaramon egiten didatenak	1	1	2 (1)
7- Nire amak bakarrik ibili ahal izateak, nire laguntzarik gabe, neure anaia txikia jagon beharrik ez izateak		2	2 (1)
8- Orain gustuko dut ikastea	1		1 (1)
9- Neure gurasoengatik egiten dut soilik	1		1 (1)
10- Jasotzen dugun etxez etxeko bisitak		1	1 (1)
11- Ezerk ez	1		1 (1)

(1) Ez da islatu portzentajea, zeren, ikusten denez, oso gutxi baitira erantzunen bat eman duten ikasleak; beraz, ezin hartu ditzakegu eskainiak elkarrizketan egon diren 50en ordezkaritzat.

## 6. ONDORIOAK-SINTESIA

- Ikastetxeetan hutsegitea maiz egiteak kalte handia eragiten du ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoarentzat, eta hori dela eta geroan eragingo ditu baztertzeko eta marjinazioko egoerak gizartean. Horrez gain, lau urteotan jaso izan diren datuek, praktika onen azterketa sakonak eta ikasketa alderatuek argi eta garbi erakutsi dute eskola absentismoa dabilela “aurkitzaile” on gisa beste arazo batzuei dagokielarik: tratu txarra, berdinen arteko erasoak, osasun arazoak..., besteak beste.
- Elkarrizketatutako 35 familiek dituzte seme edo alabak eskola absentismoko arazoekin, eta inportantea da batez ere ulertzea zergatik ez diren joaten eskolara, jakitea zer egiten duten eskolan daudenean eta zer deritzeten portaera horrek ekarriko dizkien ondorioei; ekarpenei dagokienez, honako ondorio hauek jasotzen dira:
  - Familia gehienek (%62,8) azaltzen dute euren seme-alaben arrazoia ikastetxera ez joateko dela gaixorik egotea. Azalpen hori eta ikastetxeena ez daude batere ados, noski, azken horientzat ez joateak ez baitaude justifikatuak. Azaldutakoak jartzen gaitu familien erreakzio hori interpretatzeko jardueran; justifikatu beharra daukate kanpoan badakitenez batere justifikaziorik ez daukan zerbaiten aurrean eta, paradoxikoa badirudi ere, aztertu daiteke urrats gisa arazo hau konpontze aldera.

- Euren %22,8k onartzen dute ezintasuna seme-alaben portaera kontrolatzeko, eta beraz horiexek erabakitzen dute azkenik ez joatea (zioak: haserrealdiak hartzen dituzte eta beraiekin itzultzen dira etxera, ez dute ikasi nahi, ez dira goiz jaikitzen ...).
- %91,4k adierazten dute ezen seme-alabak eskolara ez doazenean etxean daudela senideren bat lagun.
- %22,9k agertzen dute ezen etxean daudenean batzuetan senide gaixoren bat zaintzen dutela, edo anai-arreba txikiagoak, edo amari laguntzen diotela, edo telebista ikusten dute edo lotan daude...
- %68,6k uste dute ikastetxera ez joateak ondorio negatiboak ekarriko dituela euren seme-alabentzat: eskola atzerapen handia izango dute, ez dute ikasiko lagunek bezain ongi, analfabetoak izango dira, ez dute aterako eskola-graduaturik... Lerro berean, %20k pentsatzen dute geroan zailtasun handiagoak izango dituztela lana aurkitzeko eta aldion portaera horrek eroango dituela arazo batzuetara eta bizitza ohitura okerrak izatera. Alderantziz, %17,1k uste dute ikastetxera ez joateak ez diela ekarriko inolako ondorio negatiborik.
- %48,6k adierazten dute ezen euren seme-alabak eskolara ez joateak ondorioak dakarzukiela gurasoei: hitzorduak Udaletxean, Fiskaltzan, Aldundian batzuetan... Harrigarria da %25,7k ez dakitela edo ez dutela erantzuten. Badirudi %14,3k barneratuago dituztela portaera horren ondorioak erruduntasuneko sentimenduak mintzagai izanda: seme-alabentzat zuten itxaropena lortu ez izana eta seme-alaben baitan famili dependentzia handiagoko portaerari eustea.
- %85,7k baieztatzen dute nahi dutela euren seme-alabak eskolara joan daitezen, baina gero harrigarria da ematen dituzten erantzun urrietan azaltzean zer behar luketen nahi hori egiazko egin dadin ez hautematea benetako arazoak euren posibilitateetatik kanpo. Euren erantzunen artean hauexek aurkitzen dira: %17,1ek agertzen dute ez daukatela ezer egiterik euren seme-alabekin, eta norbait behar dutela ikasketen garrantzia azalduko diena. %11,4k kokatzen dute ikastetxera itzultzea eskola planteamendu batzuk aldatzean: beranduago hastea, jantokitik ez botatzea... Adibidez, erantzun bakar batzuk honelakoak dira: taxi bat jar diezaietela, edo lagun bat eskolara eramateko...
- 50 ikasle absentisten ekarpenei dagokienez, elkarrizketetan jasota, non eskatzen baitzitzaien informazioa eskolara ez joateko arrazoiei buruz, zer egiten duten huts egiten dutenean, gurasoen erreakzioagatik, portaerak ekarriko dizkien ondorioengatik eta, azkenik, ikastetxera itzularaziko lituzkeenagatik, hurrengo hau jasotzen da:

- %76k alegatzen du zioen bat ikastetxeekin lotua dagoena (aspertu egiten dira eskolan, ezin jarraitu eskolak dena oso zaila izateagatik, irakasten dutenak ezertarako ere balioko ez duela ikusi...).
- Hona hemen beste ziorik: beste gauzarik egin nahi dutelako (lo egin, kalean ibili, adiskideekin egon...), senide gaixoren bat edo anai-arreba txikiagoak jagon behar dituztelako, familiari lagundu...
- %66k agertzen dute ikastetxera ez doazenean etxean geratzen direla (lotan, telebista ikusten, norbait jagoten...). %36k adierazten dute kaleratzen dela, hor nonbait dabilela adiskideekin... Beste batzuek dote lanen batean laguntzen dietela gurasoei, txikiak laguntzen dituztela eskolara...
- %82k adierazten dute euren amek dakitela ez direla eskolara eta honelako jarrera hartzen dutela:
  - %73,2k zelan edo hala jokatzeko dute (haserretu eta agirika egiten die; zigortu egiten ditu asteburuetan irten ezinean, sakelarik gabe, ordenagailurik gabe, pagarik gabe, telebista ikusi ezinean...).
  - %26,8k jarrera pasiboa hartzen dute edo baita justifikatzeko ere (ez dute ezer egiten edo ongi ere baderitzote).
- %66k jakinarazten dute gurasoek dakitela eskolara ez doazela. Portzentaje txikiago horrek eta elkarrizketetan jasotakoak azaltzen du kasurik gehienetan amek hartzen dutela euren gain seme-alaben eskola kontua. Hona hemen aiten erreakzioa:
  - %72,7k zelan edo hala jokatzeko dute (haserretu eta agirika egiten die; zigortu egiten ditu asteburuetan irten ezinean, sakelarik gabe, ordenagailurik gabe, pagarik gabe, telebista ikusi ezinean...).
  - Hemen %27,3k hartzen jarrera pasiboa hartzen dute edo baita justifikatzeko ere (ez dute ezer egiten edo ongi ere baderitzote).
- %98k badakite ikastetxera ez joateak ekar dezakeela ikasturtea errepikatu beharra, eskola graduatuko titulua atera ezina, geroan zailtasun handia lana lortzeko... Halaber erakusten dute, ondorioetan, errieta eta zigorrak jasotzea irakasle eta familien aldetik eta, azkenik, badaude batzuek eurentzat inolako ondorioirik ez daukala agertzen dutenak.
- %72k adierazten dute itzuli direla ikastetxera. Hori egitera bultzatu dituzten arrazoiak bi esparrukoak dira batik bat: pertsonala (ulertu dute eurentzat hobea dela, %50ek; eskolak ez dira hain aspergarriak, %13,9k; badut lagun bat laguntzen didana, %13,9k...) eta familiarra (familiak behartzen naudelako: %47,2).
- Ematen dituzten erantzunen artean, zerk itzularaziko lituzkeen eskolara azaltze aldera zera aurkitzen da: graduatua ateratzea, jaramon egiten dieten irakasle onak izatea, eskolak beranduago hastea, arratsaldean eskolarik ez egotea... Bestalde, batzuek argi eta garbi adierazten dute ez dutela batere

motibaziorik, eta baldin badoaz gurasoengatik dela edo jasaten duten prezioagatik.

- Arazo horren dimentsioari dagokionez Bizkaian 2009-2010 ikasturtean zehar, hona hemen ondorioak:
  - Portaera absentista eta deseskolatua daukaten ikasleen kopuru osoa 1.475 da (Oinarrizko Irakaskuntzako lagunen %1,5). Zenbaki horrek berekin ekarri du areagotze bat (156 kasu) iazkoaren aldean.
  - Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %2,4k eta DBHkoen %3,1ek portaera absentista izan dute.
  - Itunpeko ikastetxe pribatuetan portaera hori izan duten ikasleen kopurua %0,3 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,6 DBHn.
  - Portaera absentista metatua ikasturtean zehar Lehen Hezkuntzan aztertuz gero, portzentajerik handiena %25eko tartean dago. Hau da, absentisten %87k galdutako eskola egunek Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzan eta %76k Ikastetxe Pribatu itunduetakoetan ikasturtean zehar ez dute gainditzen bakoitzeko urteko eskola denboraldiko guztien %25.
  - DBHn absentismoko portzentajerik handiena ere –%74,9 Ikastetxe publikoetan eta %71 Ikastetxe pribatu itunduetan, %25raino biltzen da tartean–, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuekin konparatuz gero. Aitzitik, nabari areagotzen da absentisten kopurua portzentajerik handiena daukan egun galduen tartean (%75 baino gehiago), eta %10,3 lortzen du Ikastetxe publikoetan eta %12,8 Ikastetxe pribatu itunduetan, deseskolatuen datuak eransten baldin baditugu.
  - “Absentismo zuzendu”ari dagokionez, erregistrorik ez egote gisa ulertuta apiril, maiatz eta ekainean zehar gutxienez, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten %46,6 izan da eta DBHko %41,8; eta Ikastetxe pribatu itunduetan %43 Lehenean eta DBHko %45,2. Azken datuok jartzen gaituzte arazoaren dimentsio zehatzago batean. Hartara, absentismorik larrienak –ikasturte osoan zehar dirau tinko– Lehen Hezkuntzako 419 ikasleri eragiten die (%0,7) eta DBHko 345ri (%1). Orotara Oinarrizko Hezkuntzako 777 ikasle (%0,8).
  - Ikasle deseskolatuei dagokienez, ikastetxe publikoetan %0,06 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,2 DBHn. Ikastetxe pribatu itunduetan deseskolatzea %0,01 izan da Lehen Hezkuntzan, eta DBHn %0,08.
  - Haur Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen %2k portaera absentista izan dute, eta %0,1ek Ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta deseskolatzea handiagoa da ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %2,5 eta DBHn %3,4) Ikastetxe pribatu itunduetan baino; Lehen

Hezkuntzan %0,3 daukate eta DBHn %0,7. Ezberdintasun honek erlazio estua dauka jende baztertuaren portzentajearekin arlo ekonomiko, familiar, sozial edo kulturalari dagokiolarik, ikastetxe batean edo bestean eskolatzeko orduan; oro har handiagoa da sare publikoetan, eta nolahi ere ezberdina bakoitza kokatuta dagoen eskualdearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalean Lurralde osoan, baizik eta bi eskualdek (Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeak) ikasle horien %91,6 hartzen dute beretzat. Oso adierazgarria da 3 zonaldeari dagokion portzentaje handia (%62,2).

- Absentismo eta/edo deseskolatze arazoak direla eta kalteturik geratu diren ikastetxeak ikastetxe publikoen %50 izan dira eta pribatu itunduen %29,1. Portzentajea eskaintzeko asmoz 6 ikasle absentista edo gehiagoko irizpidea baldin badarabilgu ikastetxe bakoitzean, orduan ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen %20,3 litzateke eta pribatu itunduen %7,1 Ikastetxeok absentismo eta deseskolatzeko mapa zehatz bat marrazten dute eskualdeka:
  - Bizkaian kalterik gehien jaso duten eskualdeak, lehenago esan den legez, Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeei dagozkienak dira. Zehatzago Bilboko zenbait auzuneri dagozkie (Otxarkoaga, Casco Viejo, San Francisco, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugalete eta Sestao udalerrietako auzotegi batzuei.
- Badago irizpide are zorrotzago bat –ikastetxe kaltetutzat jotzeko ikasleen %20 edo gehiago portaera absentista eta/edo deseskolatuarekin–, egoera honetan zortzi Ikastetxe publiko eta Ikastetxe pribatu itundu bat jartzera eramaten gaituena.
- Kasu aurkitu eta era positiboan ez zuzenduen %33 Ikastetxeetatik bideratu dira Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara edo beste Udal zerbitzu batzuetara. %0,5 Foru Aldundiaren Haur Zerbitzu espezializatueta izan da eta %4,6 Ministerio Fiskalera (Adingabeen Fiskaltza).
- Azkenik, zera behar da agertu aurten ere: arazo honek eskola-populazioaren zatitxo bati eragiten dion arren, ez ditugu gauza batzuk ahantzi beha:
  - 1º Kaltetuak –kopuru absolututan 1.475– 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak dira, eta euren derrigorrezko eskolatzeta da gizarteak ezarritako mekanismoa, hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera, eta ez da benetan gauzatzen, egia esan.
  - 2º Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jokatzeak, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, berekin ere badakar geroko gizarte bazterketa eragiten duen kausetariko bat ez ezabatzea.

## 7. PROPOSAMENAK

Batzordeak, sartuta daude profesionalen ekarpenak, gure inguru hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak eta prozesuaren balioespina bera kontuan edukita, deritzo beharrezkoa dela segidan datozen hobetzeko proposamenak aurkeztea, eta ia guztiak joan den ikasturteko txostenean ere azaldu zirelakoan daude.

- Ikastetxeari eskatzen zaie, lehenago bezalaxe, euren ahaleginari eustea, eta ahal izanez gero, gauza bera baita areagotzea ere, bertaratze kontrol sakona burutze aldera. Kontrol hori ez da jo behar jokabide iraingarritzat lehen urrastzat baizik balizko arrisku akademiko pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatzeke ikasle kaltetuentzat. Gainera, gogoratzen da ikastetxeak erabaki behar dituela irizpideak hutsegiteak justifikatzeko edo ez, eta horiek tutore guztiek aplikatu behar dituztela berdin.
- Halaber, sartuta dauden guztiei eskatzen zaie (irakaskuntza taldeak, gizarte-taldeak eta zerbitzu espezializatuak) kasua aurkitu eta/edo bideratu ostean berehalako esku-hartze koordinatua.
- Arazo hori zabala dela eta, (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarritzko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharko litzaioke sartuta dauden Erakunde guztien aldetik, eta horrexek kontenplatu beharko lituzke eraginik handiena jasan duten eskualde eta Ikastetxeak alde batetik, eta kasuak banaka aztertu bestetik. Edozein egoeratan lehentasuna eman behar zaie adinik txikienak dituztenei eta Lehen Hezkuntza etapatik Derrigorrezko Bigarrenera iragatean, eta esku-hartzea eta segimendua bermatuak egongo dira harik eta sartuta dauden haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.
- Aurreko atalean azaldutako esku-hartze diferentzialaren barruan, zera proposatzen da: 1) Egoera horrek bereziki kaltetua dagoen ikastetxe bakoitzean lan talde bat sortzea, zergati zehatzak aztertzen eta hobetzeko proposamenak egiten dituen. 2) Prestakuntzako esku-hartzea ikasle absentisten familiarekin, adin txikiko seme-alabak dituztenei lehentasuna emanez. Prestakuntza horretan parte hartzeak loturik egon behar luke sartzeko hitzarmenekin. Eta 3) DBHko ikasleak izanez gero, proposamena da babesten dituzten Ikastetxeari eskaintzeko aukera zabalagoak irakaskuntza normalizatua baino, autonomia garatuz curriculum egokitu eta oinarritzko gaitasunen errefortzuko programak hobetzeko xedez. Nolanahi ere, ikastetxean berriro sartzen diren ikasleek laguntza berezia izango dute tutoreen eta ikastetxeko aholkulari eta orientatzaileen aldetik, ikastetxearen, udal zerbitzu eta familien arteko esku-hartzeko Egitasmoan erabakitakoa ahalbidetu dadin. Gauza beraren zain egon behar da sartuta dauden udal zerbitzuetako langileen aldetik (gizarte eta hezkuntzakoak) familia absentista eta seme-alabei dagokienez.
- Aurten ere, Batzordeak berriro balioesten ditu oso era positiboan burutu diren ahaleginak eragile eta Erakunde bakoitzaren aldetik, komunikazioa eta esku-hartze koordinatua hobetzeko programaren aplikazioko bosgarren ikasturte honetan zehar. Ikastetxe guztiei absentismo eta deseskolatzeko hiruhileko sintesia aurkeztea eskatu izanari esker hobetu egin da kontrola datuak jasotzeko orduan. Alabaina,

- oraindik ere azpimarratu behar da epeak errespetatzea programaren barruan dauden esku-hartzeetan.
- Beharrezkoa izango litzateke Adingabeen Fiskaltzarekin eta/edo dagokion instantzia judizialarekin harremanetan jarraitzea. Aurtengo topaketetan jakinaraziko dira txosten honetako datuak eta jarraitu egingo da aztertzen elkarrekin batera Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera bideratutako kasu bakoitzaren banako eboluzioa.
  - EAEko Administrazio publikoen jokatzeko printzipioei erantzun nahian haur eta nerabeei laguntzeko eskumenak erabiltzeko orduan, otsailaren 18ko 3/2005 Legean jasota, Haur eta Nerabeak Lagundu eta Babesteko eta, zehatzago, lege horren 5, 7 eta 41 artikuluetan adierazten den kontuan, proposatzen da lankidetzako hitzarmenak izenpetzea Hezkuntza Sailaren eta Udalen artean absentismoko erarik larrienak dauzkaten auzoak eta udalerriak kontuan edukita. Hitzarmenekin batera giza baliabide espezifikoak joango lirateke arazo hori gehien jasaten duten eskualde eta Ikastetxeetako gizarte- eta Hezkuntza-dimentsioa batera lantzeko xedez. Datorren urtean aukera izango lukete izenpetzeko absentismoko indize handia daukaten Udalekin.
  - Aurrekoa martxan jartzen ez den bitartean, jarraipena emango zaio duela bi urte ikasle absentista asko duten bi zentzorekin hasitako esperientziari; bata Lehen Hezkuntzako da, eta bestea DBHkoa, eta bertan Hezkuntza. Ikuskaria izango dute buru, eta sareko lana jarriko da hezkuntza taldearen aldetik (irakasleak, laguntza zerbitzua eta Ikuskaritza) eta sozialetik (bitartekariak, gizarte-langileak eta zerbitzu espezializatuak).
  - Berriro ere, Batzorde honek azpimarratu behar du Lurralde Ordezkaritzaren aldetik dagozkion gauzetan, edo Hezkuntza Saileko beste erakunde batzuen aldetik, zehaztu egin behar direla irizpideak ikasleen artean absentismo indize handia daukaten ikastetxeak irizpide diferentziaz tratatu daitezzen “Lanpostuen Zerrenda”ri, ikastetxe horietako pertsonala izendatzeari, heziketako proposamenei, laguntza ekonomikoari... dagokionez. Horrela aurreikusten du maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzakoak, eta 81.4 artikuluan zera jasotzen du: “*las Administraciones educativas dotarán a los centros públicos y privados concertados de los recursos humanos y materiales necesarios para compensar la situación de los alumnos que tengan especiales dificultades para alcanzar los objetivos de la educación obligatoria, debido a sus condiciones sociales.* Berdin jasotzen du Euskal Eskola Publikoko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, eta 10 artikulua xedatzen du berdintasun printzipioa eta dauden diskriminazio egoerak kentzea eraginkor egite aldera, EAEko urteroko Aurrekontu Nagusietan jasoko dira konpentsazioko fondo batean sartu beharreko kredituak baliabideak hobeto banatu ahal izateko. Halako irizpide diferentzialek lotuak egon behar dute egitasmo eta/edo planak gauzatzeari ikasleei laguntze aldera. Zehatzago eta, lehen urratsa legez, aintzat hartuko dira batez ere absentismo indizea %20tik gorakoa daukaten ikastetxeak; egoera horretan daude bederatzi Ikastetxe publiko eta itunpeko Ikastetxe pribatu bi.
  - Aurreko proposamena sendotu nahian eta abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 79.3. artikuluan ezarrita dagoena betetze aldera, Onarpenak Bermatzeko eta



Gizartean Sartzeko, proposatu egiten da plan bereziak egiteko zenbait auzune, udalerrri, eskualde eta beste esparru geografikotarako, non, degradazioagatik eta pobrezia eta gizarte-bazterketa tasa altuengatik, behar baita ezinbestean ekintza integral bat epe labur edo ertainera. Proposamena zehazten da txosten honen 24. orrialdean aipatzen diren auzune eta udalerrietariko batzuetarako.

- M. Scriven-ek esaten zuen: “Hobetzeko xedez, ebaluatu beharra”. Hezkuntza- zein gizarte-esparruan, martxan jarriko diren politika eta estrategiak ebaluatu egin beharko dira errealitate eta eraginkortasunari egokitu izana egiaztatze aldera. Hortaz, proposatzen da ebaluatzea erakundeek eskola-absentismoa kentze aldera martxan jarritako politika, estrategia eta esku-hartzeak. Horren haritik, biziki gomendatzen da truke, azterlan eta laguntzako talde bat eratzea, non parte hartzen baitute gehien kaltetua dagoen ikastetxe bakoitzeko aholkulariak, orientatzaileak edo zuzendariak, zonaldeko ikuskariek, Berritzeguneak horretarako izendatuko dituen arduradunek, ikastetxeotan sartuta dauden udal zerbitzuetako langileek, Segimenduko Batzorde horretako ordezkari batek, UPV/EHUko ordezkari aditu batek eta ISEI/IVEIko ordezkari kualifikatu batek, arazoak aurkitu eta ongi konpontze aldera.

## 8. ESKER ONAK

Hobekuntzako osagai asko aurkitzen diren arren –horiek jaso dira txostenean zehar eta eskola absentismoko arazoa ez da oroz konpondu–, esan beharra dago segimenduko batzordeak Programa aplikatzeko lau ikasturteotan zehar aukera izan du ahalegin asko ikusteko profesionalak eta Erakundeek gauzatuak praktikan jartzeko unean. Azpimarratu behar da bereziki absentismoa eta deseskolatzea aurkitzeko zereginetan gauzatu den lan handia, jasotako informazioa erabili izana, arazoari era sektorialean hartzeko ekimenak martxan jartzea; ekimenok “haur eta nerabeen interes gorena” dute esku hartzeko ardatz. Halaber, nabarmentzen dira emandako urrats garrantzitsuak sartuta dauden Erakunde eta profesionalen koordinazioetan.

Hementxetik bihoa gure esker ona.

Bilbon, 2011ko urtarrilaren 19an

### SEGIMENDUKO BATZORDEA

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:

- Ana Alonso
- Inmaculada Cereceda

#### Bizkaiko Foru Aldundia

- Alazne Madinabeitia
- Nuria Pajares

#### EUDEL

- Ainara Bergaretxe- Dorleta Goiburua
- Manuela González- Elsa Sánchez
- Elvira Etxebarria- Iñaki Iglesias
- Miren San Martín

# ERANSKINAK

## I ERANSKINA

- **Elkarrizketako gidoi-orria ikasle absentisten familientzat**



## ELKARRIZKETAKO EREDUA IKASLE ABSENTISTEN FAMILIENTZAT

IKASTETXEAK.....

.....

SEME-ALABEN KOP.:

MAILA:	ADINA:	SEXUA:	% ABSENTISMO
_____	_____	_____	_____
_____	_____	_____	_____
_____	_____	_____	_____
_____	_____	_____	_____

1.- Zergatik ez doa eskolara zure seme/alaba? Azaldu itzazu arrazoiak

.....  
 .....  
 .....  
 .....

2.- Zer egiten du zure seme/alabak eskolara ez doanean? Norekin dago eta non?

.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

3.- Zure ustez, zer-nolako ondorioak ekarriko dizkio zure seme/alabari eskolara ez joateak?

.....

.....

.....

.....

.....

4.- Eta zuri?

.....

.....

.....

.....

.....

5.- Nahi al duzu zeure seme/alaba eskolara joatea? Nola lagundu dakiokede? Zer behar du berak?

.....

.....

.....

.....

.....

## II ERANSKINA

- **Elkarrizketako gidoi-orria ikasle absentistentzat**



## ELKARRIZKETAKO EREDUA IKASLE ABSENTISTENTZAT

IKASTETXEA.....  
.....

MAILA:                      ADINA:                      SEXUA:                      % ABSENTISMO

1.- Zergatik ez zoaz eskolara?

- Aspertu egiten naiz eskolan
- Ez dut ongi ulertzen hizkuntza
- Ez daukat eskolari jarraitzerik dena oso zaila zaidalako
- Argi ikusten dut irakasten didatenak ez didala ezertarako ere balioko
- Ez dut aurkitzen sostengu/laguntzarik irakasleen artean
- Ez dut adiskiderik Ikastetxean. Zergatik?
- Nire adiskideek ere egiten dute
- Senideren bat jagon beharra daukat
- Familiari laguntzen diot lanen batean
- Nahiago dut beste gauzarik egin. Zein?
- Ez dago arrazoi berezirik
- Besterik (idatzi erantzunak):

.....  
.....

## 2.- Zer egiten duzu eskolara ez zoazenean?

- Etxean geratzen naiz (telebista ikusten edo ordenagailuan nabigatzen, lotan, norbait jagoten...)
- Gurasoei laguntzen diet lanen batean. Zeinetan?
- Kalera noa, hor nonbait nabil (bakarrik, adiskideekin...). Zer egiten duzu?
- Beste erantzunik (idatzi erantzunak):

.....  
.....

## 3.- Familiaren erreakzioa:

Ba al daki amak ez zoazela eskolara?

- Bai                       Ez

Zer dio edo egiten du zure amak eskolara ez zoazela dakienean? Markatu X batez ongi deritzezun esaldien ondoko laukiak.

- Ongi deritzo
- Zigortu egiten nau. Nola?
- Haserretzen da eta agirika egiten dit
- Ez du ezer egiten

- Besterik:                      (idatzi erantzunak):

.....  
.....

Ba al daki aitak ez zoazela eskolara?

- Bai                       Ez

Zer dio edo egiten du zure aitak eskolara ez zoazela dakienean? Markatu X batez ongi deritzezun esaldien ondoko laukiak.



- Ongi deritzo
- Zigortu egiten nau. Nola?
- Haserretzen da eta agirika egiten dit
- Ez du ezer egiten
- Besterik: (idatzi erantzunak):

.....  
.....

4.- Zure ustez, zer-nolako ondorioak ekarriko dizkizu eskolara ez joateak?

- Ezer ez
- Titulurik gabe geratuko naiz eta zaila izango zait lanik lortzea
- Errietak eta zigorrak irakasle eta senideen aldetik
- Ikasturtea errepikatzea
- Besterik: (idatzi erantzunak):

.....  
.....

5.- Itzuli al zara eskolara?                      BAI                       EZ

Zer dela eta itzuli zara eskolara?

- Aspergarri gutxiago deritzet eskolei (aldatu egin dira eskolak emateko moduak, ordenagailu gehiago erabiltzen ditugu, lan gehiago egiten ditugu...)
- Familiak behartzen nauelako
- Ulertu egin dut hobe zaidala
- Etxean baino hobeto nagoelako
- Badut lagun bat laguntzen didana
- Besterik: (idatzi erantzunak):

5. Zer itzularaziko zintuzke eskolara?

## III ERANSKINA

- **Bibliografia**

## **BIBLIOGRAFIA**

CASPE, M., LÓPEZ, M. y WOLOS, C. (2007). *Family involvement makes a difference. 2, winter 2006/2007*. Cambridge: Harvard Family Research Project, Harvard Graduate School of Education.

DEARING, E., KREIDER, H., SIMKINS, S., Y WEISS, H.B. (2006). Family involvement in school and low-income children's literacy performance: Longitudinal associations between and within families. *Journal of Educational Psychology*, 98, 653-664.

DELORS, J. (1996). *La educación encierra un tesoro*. Madrid. Santillana, Ediciones Unesco.

DRIESSEN, G., SMITH, F. y SLEEGERS, P. (2005). Parental Involvement and Educational Achievement. *British Educational Research Journal*, 31(4) 509-532.

FLECHA, A. y otros. (2009). Participación en escuelas de éxito: una investigación comunicativa del proyecto Includ-ed. *Cultura y Educación*, 21(2), 183-196.

GONZÁLEZ, M.T. (2006). Absentismo y abandono escolar: una situación singular de la exclusión educativa. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, Vol 4, nº1.

HEDIBEL, M.E. (2005). Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar. *REICE. Revista Electrónica Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, Vol 3, nº1.

HESS, R.S., MOLINA, A.M y KOZLESKI, E.B. (2006). Until Somebody Hears Me: Parent Voice an Advocacy in Special Educational Decision Making. *British Journal of Special Education* 33(3) 148-157.

MERRY, M. (2005). Social exclusion of muslim youth in flemish and french speaking Belgian schools. *Comparative Education Review*, 49(1), 1.

RÚE, D. AMELA, M. y BUSCARONS, M. (2003). *El absentismo escolar como reto para la calidad educativa*. CIDE. Segundo Premio de Investigación Educativa. Barcelona.